Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko ekainaren 15a, osteguna — 114 — Jueves, a 15 de junio de 2017

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*283/2017 Foru Agindua, ekainaren 5ekoa, zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioa autolikidatzeko 221 eredua onartzen duena.*

Abenduaren 16ko 17/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga egokitzapen batzuk sartzen dituenak, Gipuzkoako zerga ordenamendura ekarri zuen zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeko erregulazioa, hain zuzen ere, azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza-erakundeen gainbegiratze eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premiazko neurriei buruzkoak, jasotakoa.

Geroago, Europako Batzordeak gai horretan ezarritako beharkizunetara gure ordenamendua egokitzeko, abenduaren 29ko 3/2015 Foru Dekretu-Araua onartu zen, zerga geroratuen aktibo fiskalei aplikagarri zaien araubidea aldatzen duena. Erregulazio berriak aldatzen du bai aipatutako 17/2014 Foru Araua eta bai Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako zergadunaren aldeko eskubidetzat hartzen du zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeko araubidea, baldintza berriak gehitzen ditu araubide horretara biltzeko, baita informazio obligazio batzuk ezarri ere. Horren gain, araubide iragankor bat ezartzen du zerga geroratuen aktiboetarako, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako aktiboak direnean.

Araubide iragankor horrek bi taldetan banatzen ditu zerga geroratuen aktiboak:

a) 2008ko ekitaldia baino lehen hasitako zergaldietan sortutakoak.

17/2014 Foru Arauak hirugarren xedapen iragankorreko lehen apartatuan ezartzen duenez, horrelako aktiboak kreditu galdagarri bihurtu daitezke, haiek sortzen diren zergaldiko kuota likido positiboa zeinahi dela ere, baldin eta foru arau horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren apartatuan araututako zirkunstantzietako bat betetzen bada (kontabilitate galerak izatea, entitatea likidatzea edo epaileek haren kaudimengabezia aitortzea).

b) 2008ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 bitartean hasitako zergaldietan sortutakoak.

Zerga geroratuen aktibo hauek zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeko ahalmena araututa dago, batetik, 17/2014 Foru Arauaren hirugarren xedapen iragankorreko bigarren apartatuan eta, bestetik, sozietateen gaineko zergaren foru arauko hemeretzigarren xedapen gehigarri berrian.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 283/2017, de 5 de junio, por la que se aprueba el modelo 221 de autoliquidación de la prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria.*

La Norma Foral 17/2014, de 16 de diciembre, de correcciones técnicas y otras adaptaciones tributarias de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, sobre el Impuesto de Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporó al ordenamiento tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa la regulación de la conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria, a que hacía referencia el Real Decreto-Ley 14/2013, de 29 de noviembre, de medidas urgentes para la adaptación del derecho español a la normativa de la Unión Europea en materia de supervisión y solvencia de entidades financieras.

Posteriormente, a efectos de adecuar nuestro ordenamiento a las exigencias de la Comisión Europea en relación a esta materia, se aprobó el Decreto Foral-Norma 3/2015, de 29 de diciembre, por la que se modifica el régimen aplicable a los activos fiscales por impuesto diferido. La nueva regulación modifica la citada Norma Foral 17/2014, y la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, sobre el Impuesto de Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y con efectos para los períodos impositivos que se inicien a partir de 1 de enero de 2016, configura el régimen de conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria como un derecho a favor del contribuyente, introduciendo nuevas condiciones para acceder al mismo, así como ciertas obligaciones de información. Además, establece un régimen transitorio aplicable a los activos por impuesto diferido generados en períodos impositivos que se inicien antes de 1 de enero de 2016.

Dicho régimen transitorio distingue dos grupos diferentes de activos por impuesto diferido:

a) Los generados en períodos impositivos previos al ejercicio 2008.

Según lo dispuesto en el apartado uno de la disposición transitoria tercera de la Norma Foral 17/2014, tendrán facultad de conversión, siempre que concurra alguna de las circunstancias habilitantes reguladas en el apartado dos de la disposición adicional segunda de la Norma Foral 17/2014, (pérdidas contables, liquidación o insolvencia judicialmente declarada), cualquiera que hubiera sido el importe de la cuota líquida positiva correspondiente al período impositivo de su generación.

b) Los generados en los períodos impositivos iniciados entre 1 de enero de 2008 y 31 de diciembre de 2015.

La facultad de conversión de estos activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria se encuentra conjuntamente regulada en el apartado dos de la disposición transitoria tercera de la Norma Foral 17/2014 y en la nueva disposición adicional decimonovena de la norma foral del impuesto sobre sociedades.

EK\CV GAO-I-2017-04126

Erregela hauen arabera arautzen da:

— Zerga geroratuen aktiboen zenbateko osoa, 2008tik 2015era bitartean, bat badator epealdi bereko sozietate zergaren kuota likido positiboen baturarekin, zenbateko hori kreditu galdagarri bihurtu daiteke zerga administrazioaren aurrean, aktiboak sortu diren zergaldiko kuota likido positiboa edozein dela ere, baldin eta hori ahalbidetzen duten zirkunstantzietako bat betetzen bada (kontabilitate galerak izatea, entitatea likidatzea edo epaileek haren kaudimengabezia aitortzea).

— Zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa handiagoa bada sozietate zergan izandako kuota likido positiboen batura baino, zenbateko hori ere kreditu galdagarri bihurtu daiteke, baina, kasu horretan, araututako zirkunstantzietako bat betetzeaz gainera (kontabilitate galerak izatea, edo entitatea likidatzea edo epaileek haren kaudimengabezia aitortzea) beharrezkoa da soberakin horren 100eko 1,5eko ondare prestazioa ordaintzea.

Ondare prestazio hori prestazioak ukitutako zerga geroratuen aktibo guztiengatik ordainaraziko da, eta ordaindu beharko da 2008-2015 epealdian zerga geroratuengatik sortutako aktiboak erregistratuta mantendu diren eta zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtu zitezkeen zergaldi guztietan.

Sozietateen gaineko zergaren foru arauko hemeretzigarren xedapen gehigarriak, «Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioa» izenekoak, ondare prestazioaren nondik-norakoak ezartzen ditu, haren sortzapena eta ordaintzeko epea finkatzen ditu, eta autolikidazioa foru agindu bidez arautuko dela dio.

Hortaz, foru agindu honen xedea da zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioaren 221 autolikidazio eredua onartzea, ereduaren aurkezpen telematikorako prozedura arautzea eta ordaintzeko epea eta modua finkatzea.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioa autolikidatzeko 221 eredua onartzea.*

Onarturik geratzen da 221 eredua, «Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioaren autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

*2. artikulua. 221 eredua aurkeztera behartuak.*

1. Autolikidazioa aurkeztera behartuta daude sozietateen gaineko zergaren zergadunak, baldin eta zerga geroratuen aktiboak erregistratuak baldin badituzte, hain zuzen ere abenduaren 16 17/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga egokitzapen batzuk sartzen dituenak, hirugarren xedapen iragankorreko bigarren apartatuan aipatutakoak, eta aktibo horiei dagokienez foru arau horretako bigarren xedapen gehigarrian ezartzen den eskubidea aplikatu nahi badute.

2. Ondare prestazioak sozietateen gaineko zerga autolikidatzeko borondatezko epea hasten den egunean izango du sortzapena.

*3. artikulua. 221 eredua aurkezteko modua eta epea.*

1. 221 ereduaren autolikidazioak bide telematikoz baino ezin dira aurkeztu.

Aurkezpena zergadunak berak egin dezake edo, bestela, autolikidazioak telematikoki aurkezteko behar bezala baimen-

Su regulación se basa en las siguientes reglas:

— El importe de los activos por impuesto diferido cuya cuantía conjunta en el período 2008 a 2015 iguale el sumatorio de cuotas líquidas positivas del impuesto sobre sociedades obtenidas en el mismo período, tendrán derecho a su conversión en crédito exigible frente a la Administración tributaria si concurre alguna de las circunstancias habilitantes para ello, (pérdidas contables, liquidación o insolvencia judicialmente declarada), cualquiera que hubiera sido el importe de la cuota líquida positiva correspondiente al período impositivo de su generación.

— El importe de los activos por impuesto diferido que, en su caso, exceda del sumatorio de cuotas líquidas positivas del impuesto sobre sociedades también tendrá derecho a su conversión, si bien para ello, además de concurrir alguna de las circunstancias habilitantes (pérdidas contables, liquidación o insolvencia judicialmente declarada), será necesario ingresar una prestación patrimonial igual al 1,5 por 100 sobre dicho exceso.

La referida prestación patrimonial se ejercerá respecto de todos aquellos activos por impuesto diferido afectados por la misma, y deberá ser satisfecha en todos los períodos impositivos en los que se mantengan registrados activos por impuesto diferido generados en el período 2008-2015 con derecho a convertirse en crédito exigible frente a la Administración tributaria.

La disposición adicional decimonovena de la norma foral del impuesto sobre sociedades, denominada «Prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria» determina los términos de la prestación patrimonial, regula el devengo de la prestación así como el plazo de ingreso, y remite a una orden foral la regulación de la autoliquidación.

En consecuencia, la presente orden foral tiene por objeto aprobar el modelo 221 de autoliquidación de la prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria, regulando el procedimiento para su presentación telemática, así como el plazo y forma de realizar el ingreso.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 221 de autoliquidación de la prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria.*

Se aprueba el modelo 221, «Autoliquidación de la prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria», que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 221.*

1. Estarán obligados a presentar la autoliquidación los contribuyentes del impuesto sobre sociedades que tengan registrados activos por impuesto diferido a que se refiere el apartado dos de la disposición transitoria tercera de la Norma Foral 17/2014, de 16 de diciembre, de correcciones técnicas y otras adaptaciones tributarias de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, sobre el Impuesto de Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que pretendan tener el derecho establecido en la disposición adicional segunda de la mencionada norma foral respecto de dichos activos.

2. La prestación patrimonial se devengará el día de inicio del plazo voluntario de autoliquidación del impuesto sobre sociedades.

*Artículo 3. Forma y plazo de presentación del modelo 221.*

1. Las autoliquidaciones del modelo 221 se presentarán exclusivamente por vía telemática.

Esta presentación se podrá realizar por parte del propio contribuyente o a través de representante profesional debidamente

dutako ordezkari profesionalak, azken kasuan, betiere, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

2. 221 eredua aurkezteko epea sozietate zerga autolikidatu eta ordaintzeko ezarrita dagoen berbera izango da.

3. 221 eredua formatu elektronikoan baino ezingo da eskuratu, eta foru agindu honen 4. artikuluan jasotako prozedurari jarraituz aurkeztuko da.

*4. artikulua. Autolikidazioa bide telematikoz aurkezteko prozedura.*

1. Urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duenak, 3. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera aurkeztu behar da 221 eredua.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, autolikidazioaren aurkezpenak prozedura arau hauek bete behar ditu:

1.— 221 eredua betetzea eta bidaltzea.

a) Autolikidazioa betetzeko, zergapekoek 221 ereduaren formularioa erabili behar dute, bi tokitan eskura dezaketena: Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean (http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/sociedades) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (www.gfaegoitza.eus).

2.— Igorpena balioztatzea eta autolikidazioa aurkeztu izanaren frogagiria eskuratzea.

221 ereduaren autolikidazioetan, autolikidazioari dagokion informazioa behin jaso ondoren, zergapekoak autolikidazio hori inprimatu ahal izango du, eta inprimatutako orriak zigilu digital bat eramango du aurkezpen telematikoa egin izana frogatzeko.

Bidalitako fitxategiak errorea ematen badu, «Gipuzkoatarian» ohar bat jarriko zaio ikusgai zergapekoari, errefusaren berri emateko eta zer errore izan diren jakinarazteko. Behin erroreak konponduta, berriro transmititu ahal izango da errefusatutako autolikidazioa.

*5. artikulua. Ordaintzeko era eta epea.*

1. 221 ereduaren bidez aurkezten den autolikidazioari dagokion diru-sarrera bankutik helbideratu behar da, zergadunaren izenean irekitako kontu baten kargura. Kontu horrek entitate laguntza batean egon behar du irekita, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatiba batean), eta adierazita egon behar du autolikidazioan.

2. Zerga zorra helbideratze kontutik kobratzeko aurreko 1. apartatuan aipatu diren karguak zerga-bilketa erregelamenduko 30.2 artikuluan ezarritako epean egingo dira.

3. Zerga zorra aurreko apartatuan ezarritako epean ez ordaintzeak berekin ekarriko du zorra bide exekutiboan biltzea, hala jasotzen baitu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 165.1.b) eta 165.3 artikuluetan.

autorizado para la presentación de autoliquidaciones por vía telemática, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

2. El plazo de presentación del modelo 221 coincidirá con el establecido para la autoliquidación e ingreso del impuesto sobre sociedades.

3. El modelo 221 estará disponible exclusivamente en formato electrónico y su presentación se realizará de acuerdo con el procedimiento dispuesto en el artículo 4 de esta orden foral.

*Artículo 4. Procedimiento para la presentación de la autoliquidación por vía telemática.*

1. La presentación del modelo 221 se realizará de acuerdo con el procedimiento dispuesto en el artículo 3 de la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, por el que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, la presentación de la autoliquidación, se ajustará a las normas procedimentales que se indican a continuación:

1.º— Confección y transmisión del modelo 221.

a) La autoliquidación se confeccionará utilizando el formulario del modelo 221 que se pondrá a disposición de los obligados tributarios en la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, en la dirección http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/sociedades, así como en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la dirección www.gfaegoitza.eus.

2.º— Validación de la transmisión y justificante de la presentación de la autoliquidación.

En las autoliquidaciones correspondien-tes al modelo 221, una vez recibida la información transmitida relativa a la autoliquidación comunicada, ésta se podrá imprimir, y contendrá un sello digital acreditativo de la presentación telemática de la autoliquidación.

Cuando el fichero transmitido genere error, en «Gipuzkoataria» se pondrá a disposición del obligado tributario una advertencia comunicando el rechazo y los errores detectados. La autoliquidación rechazada podrá volver a ser transmitida una vez subsanados los errores.

*Artículo 5. Forma y plazo de ingreso.*

1. El ingreso correspondiente a la autoliquidación presentada a través del modelo 221 se realizará mediante domiciliación bancaria, con cargo a una cuenta de titularidad del contribuyente, abierta en una entidad colaboradora para la recaudación de los tributos (bancos, cajas de ahorro o cooperativas de crédito), autorizadas en los términos del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, y que a tal efecto se indique en la autoliquidación.

2. Los cargos en la cuenta de domiciliación de la deuda tributaria a los que se alude en el apartado 1 anterior se efectuarán en el plazo establecido en el apartado 2 del artículo 30 del citado reglamento de recaudación.

3. La falta de ingreso en el plazo establecido de la deuda tributaria a que se refiere el apartado anterior, determinará su recaudación en vía ejecutiva, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 165.1.b) y 165.3 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2017-04126

XEDAPEN IRAGANKORRA

*Bakarra. Zein epetan aurkeztu 221 eredua, aitortzeko epea foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasi denean.*

Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ondare prestazio bat ordaindu behar den kasuetan, autolikidatzeko epea foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasi bada, zergadunek foru agindu hau indarrean jarri ondorengo 25 egun naturalen barruan aurkeztu behar dute 221 eredua, betiere sozietateen gaineko zerga autolikidatu eta ordaintzeko ezarritako epe berean.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau 2017ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2017ko ekainaren 5a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(4126)

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única. Plazo de presentación del modelo 221 en los casos en que el plazo de declaración se hubiera iniciado antes de la entrada en vigor de la presente orden foral.*

Los contribuyentes, cuyo plazo de autoliquidación de la prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración tributaria se hubiera iniciado con anterioridad a la fecha de entrada en vigor de la presente orden foral, deberán presentar el modelo 221 dentro de los 25 días naturales siguientes a la entrada en vigor de esta misma orden foral, coincidiendo su plazo de presentación con el establecido para la autoliquidación e ingreso del impuesto sobre sociedades.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el 1 de julio de 2017.

San Sebastián, a 5 de junio de 2017.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.

(4126)

EK\CV GAO-I-2017-04126

I. ERANSKINA / ANEXO I

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración Tributaria Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioa

**221**

Nº liquidación/Likidazio zenbakia

Autoliquidación / Autolikidazioa

| Ejercicio / Ekitaldia | Fecha de inicio del período impositivo / Zergaldiaren hasiera data | Fecha de fin del período impositivo / Zergaldiaren amaiera data |
|---|---|---|
| | | |

## Identificación / Identifikazioa

| NIF / IFZ | Apellidos y nombre o Razón social / Sozietate izena |
|---|---|
| | |

Solo para entidades que formen parte de un grupo / Talde baten barruan dauden entitateentzat bakarrik:

| NIF entidad representante /Dominante (incl. en el grupo fiscal)<br>Entitate ordezkariaren IFZ / Nagusia (talde fiskal barrukoa) | Razón social entidad representante/Dominante (incl.en el grupo fiscal)<br>Entitate ordezkariaren izena/Nagusia (talde fiskal barrukoa) | Nº grupo / Talde zenbakia |
|---|---|---|
| | | |

☐ Representante (entidad no dominante) / Ordezkaria (entitate nagusia ez)

☐ Dominante (incluida en el grupo fiscal) / Nagusia (talde fiskalaren barne)

## Persona de contacto / Harremanetarako pertsona

| NIF / IFZ | Nombre y apellidos / Deiturak eta izena |
|---|---|
| | |

| Email - Emaila | Teléfono / Telefonoa |
|---|---|
| | |

## Liquidación / Likidazioa

| | | |
|---|---|---|
| Importe total Activos por impuesto diferido pendiente de aplicación 2008 a 2015 / 2008tik 2015era Zerga geroratuen aktiboengatik aplikatu gabeko zenbatekoa<br>(DT 3ª NF 17/2014 y DA 19ª NF 2/2014) (17/2014 FAren XI 3ª eta 2/2014ren FA XG 19ª) | 01 | |
| Suma cuotas líquidas positivas Impuesto sobre Sociedades 2008 a 2015 / 2008tik 2015era kuota likido positiboen batura | 02 | |
| Importe Activos por imp.diferido con prestación patrimonial 2008 a 2015/2008tik 2015era ondare prestazioa duten Zerga geroratuen aktib. zenbatekoa *(01-02)* | 03 | |
| Porcentaje aplicable / Portzentaje aplikagarria | 04 | |
| Importe de la prestación / Prestazioaren zenbatekoa *(03 x 04)* | 05 | |
| Resultado de la autoliquidación anterior (exclusivamente en caso de autoliquidación complementaria)<br>Aurreko autolikidazioaren emaitza (autolikidazioa osagarria bada bakarrik) | 06 | |
| **Importe a ingresar / Ordaindu beharreko zenbatekoa** | 07 | |

## Ingreso / Ordainketa

Código IBAN / IBAN kodea

Fecha y número de envío / Data eta bidalketa zenbakia

Sello electrónico de la Hacienda Foral / Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa



EK\CV GAO-I-2017-04126